



EMUN

LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

HIZKUNTZA
ZERBITZUAK

Uriburu 9, behea 227P.Ku.
20500 ARRASATE
Tel. 943 711 847

Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 ANDOAIN
Tel. 943 300 978

emun@emun.com
www.emun.com

DEBAKO EBPN

- EBPN: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.
Datozen 4 urteetako hizkuntza politika zehazten laguntzen duen euskararen plan estrategikoa da.
- Lan ildoak:

Hau landu dugu

1. KANPO IKUSPEGIA ⇒ Debako esparru ezberdinetan euskara sustatzea: familia, gazteak, kultura, aisia, merkataritza, teknologia berriak, lan mundua, e.a.
2. BARNE IKUSPEGIA: Debako Udal barruan euskararen erabilera handitzea.

- Herritarren PARTE HARTZEAREKIN landutako plana:

- ▮ Gazteen lantaldea (10 lagun)
- ▮ Familia transmisioko lantaldea (14 lagun)
- ▮ Herritarren batzordea (8 lagun)

- Egin beharrekoak:

- ▮ Esparruen diagnostikoa
- ▮ Helburu orokorrak (2010-2012): orain artekoak eta berriak
- ▮ Kudeaketa-plana: ekintza-plana eta jarraipenerako adierazleak

IRATI
PROGRAMA
INFORMATIKOA



DIAGNOSTIKOA - GAZTEAK

AUKERAK

- Gazteek erabilitako teknologia-tresnak gero eta gehiago euskaraz.
- Euskararen ezagutza gazteetan handia da.
- Bertsolaritza augean dago: jende asko mugitzen du.
- Kirolari euskaldunak erreferente, ezagun: pelotariak, futbolariak.
- Gero eta esparru gehiago landu daitezke euskaraz: jendea prestatuta dago.

INDARGUNEAK

- Kirol-kultur arloan talde handiak sortu, haiengan eraginda jende askorengana heltzeko aukera.
- Begiraleek eragin handia
- Gazte jendea lokaletan batzen da.
- Krisia dela-eta, jendeak denbora libre gehiago, taldeetan apuntatzeko joera handiagoa (euskaltegia...)
- Herri aldizkaria euskaraz banatu, eskolan bertan argitaratzeko idatzi.
- **Euskararen inguruan lan egiteko gogoa duen jendea egotea.**
- Aisialdiko talde gehienetan euskaraz aritzeko aukera egotea
- **Kultur taldeak euskararen oinarritu: dantza, koadrilategi, pintura...**
- Elkarren berri izatea, non eta nola eragin jakiteko.

MEHATXUAK

- Kanpoko erreferentziak eredu: *Operación triunfo, fama, hip-hop...*
- **Kontzientziarik eza. Inplikazio falta.**
- **Eremu euskaldunetan jendea lasai, erdaraz egiten du: euskara ez da galduko.**
- **Eskolan gero eta garrantzi txikiagoa du euskarak**
- Aisialdiko modako bideo jokoak erdaraz.
- **Teknologia berriak: twitter...erdaraz erabili, nahiz eta aukera dagoen.**
- **Euskaldunen edukazioa: erdarara aldatzeko joera.**
- Telebista kateak, modako serieak...erdaraz ikusi
- Erdarakadak erabiltzeko ohitura.
- Etorri berriak ugaritzen: ohituretan eta hizkuntzan ere eragina

AHULGUNEAK

- **Euskara ez da erabiltzen: etxetik ohitura falta, eta gainontzekoak "arrastratu".**
- **Txakurrari eta umeari euskaraz: eredu koherenteak falta.**
- **Kanpora ikastera joatean erdaraz egiteko ohitura hartu**
- Gazteen parte hartzea oso baxua (oro har)
- Lokalen eragina: gazte asko lokaletan egoten dira, gelditu
- **Gaztetxean dena erdaraz**
- Osasun zentroa erdalduna
- **Euskarazko telebista ez da ikusten (tabernetan)**
- **Euskarazko musika ez da entzuten tabernetan**
- **Ohitura falta**
- **Ba al dago euskaraz aritzeko gogorik?**
- **Euskaraz hitz egitea ez da eskatzen: demanda soziala urria**

Eskaintza euskaraz

Euskaraz egiteko nahia

AUKERAK

- Inguruan euskara jakin eta erabiltzeko aukera
- **Gurasoek jakin ez arren, umeein erabiltzeko joera.**
- Euskara planak egotea enpresetan, udaletan
- Belaunaldi berriek komunikabide eta teknologia berriak eskura, euskara zabaltzeko aukera.
- EAEn berezko hizkuntza, lege babesa.
- **Euskal Herrian bizitzeko euskara integrazio bide.**
- Administrazioan perfilek euskara agerian jarri.
- Hezkuntza arloan aukerak: D eredu, unibertsitatea.
- Gero eta profesional gehiago euskaraz jarduteko
- Euskaraz prestigioa du lan munduan, postu batzuetan beharrezko.
- **Euskaldunak itxiak garelako, arnagunea eman diogu; koadrilatan mantendu da.**

INDARGUNEAK

- Itziarren: euskara hutsean bizitzeko aukera dago.
- Herri euskalduna izatean, guraso eta semeen artean, oro har, euskaraz egiten da.
- Eskolan D eredu. Erdaldunek euskaraz ikasteko aukera.
- Motibazio eta sentsibilitate handia euskaldunen artean: herri mailako ekintzetan parte-hartze handia.
- Udaletxea arazoaren jakitun, aldeko jarrera izatea.
- Identitatearen harrotasuna (ikastolak ordaindu, prozesua)
- Herri txikia izateak euskara bultzatzen lagundu: ekimenetan
- Euskararen aldeko jarrera baikorra (euskaldunak ez direnen partetik): haurrek ikas dezaten...
- Belaunaldi berriek eta gurasoek euskaraz badakite
- Sentimendu bat
- Euskaldun orok dauka hizkuntza galduko den beldurra eta horrek indartu egiten du.
- Eskolaz kanpoko ekintza gehienak euskaraz dira.

+

+

Eskaintza euskaraz

Euskaraz egiteko nahia

MEHATXUAK

- Teknologia berrien erabilerak kalte egin euskarari: gramatika zaindu ez. Euskaraz bai, baina nola?
- Euskara teknikoegia erabiltzen da (buletina)
- Politikariek gure hizkuntzari ematen dioten tratamenduaren menpe gaude: Ertzaintza...
- **Azkar galdutzat eman euskaraz aritzeko eskubidea.**
- **Kaleko erdara nagusi (helduen artean), haurrek ikusi.**
- **Euskararen prestigio falta, ez da alor guztietarako hizkuntza (adinekoak)**
- **Euskaldunen erdararako joera handia:ohiturak**
- Euskara ez da derrigorrezkoa:legeak, babes falta.
- Euskarari arloak falta lantzeko: ingeniariaritz...
- **Autokritika falta: eskatu bai, baina...**
- Kultura-aisialdi aukera gutxi euskaraz: zinema, bideo jokoak, liburuak...
- Komunikabideetan euskaraz pausoak eman arren, oasia.
- Herria handitzeko proiektua: etorri berrien hizkuntza?
- Familia-harremanak aldatzen, euskararen eraginik?
- Egoera politikoa-ekonomikoa: murrizketak euskarari.
- Mundu globalizatuan hizkuntza txikiak ahul.

AHULGUNEAK

- **Hizkuntzari ez eustea (euskaldunen artean..)**
- Euskara eta erdararen arteko nahasketa
- **Ohiturak: pertsona batzuekin beti erdaraz**
- Deban erdaraz bakarrik eginda bizi gaitzke, euskaraz bakarrik eginda ez.
- Euskara herrikoia ez da bultzatzen
- **Koadrilatara erdaldun bat sartzen den momentuan erdarara egiten da jauzi.**
- **Lehenengo hitza euskaraz ez egitea, ohitura erdarara jotzea zuzenean**
- **Erdarara pasatzeko erraztasuna**
- Etxean, bikoteetako batek euskaraz ez jakitea.
- **Biak euskaldunak izan arren, bikote askok erdaraz**
- **Haurrek erdara nagusiekin lotu, nagusien hizkuntza**
- **Txakurrei eta umeei egiteko hizkuntza da**
- **Eredu koherentea falta da.**
- **Euskarazko egunkaria eta irratia ez erabiltzea**
- **Kanpotik datozen erdaldunak. Denek ez dute ikasten.**
- Euskararen egitura okerrak erabili.

-

-



Lan esparruak:

1.- FAMILIA TRANSMISIOA

- ▮ Erdal hiztunak direnak euskarara erakarri
- ▮ Familia euskaldunetan **guraso eta gaztetxo**en arteko harreman-hizkuntza euskara izan dadin ziurtatu.
- ▮ **Bikote euskaldunen** arteko harreman-hizkuntza euskara izan dadin lortu
- ▮ Euskara Batzordeko partaideen arteko elkarlana eta koordinazioa handitu

2.- EUSKALDUNTZEA-PRESTAKUNTZA

3.- IRAKASKUNTZA

- ▮ DBHko ikasleen hizkuntza portaeretan eragin, gerora euskaraz egin dezaten
- ▮ Ikasleen ahozko jarioetasuna hobetu, euren arteko harremanetan eroso jarduteko

4.- ADMINISTRAZIOA (Erabilera Plana)

5.- LAN MUNDUA

- ▮ Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu

6.- AISIA

- ▮ Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu
- ▮ Elkarte bateko partaideen arteko hizkuntza portaeretan eragin
- ▮ Koadriletan euskararen erabilera handitu

7.- KIROLA

- ▮ Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu
- ▮ Kirol talde bateko partaideen arteko hizkuntza portaeretan eragin

8.- KULTURA

- ▮ Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu
- ▮ Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu
- ▮ Tokian tokiko hizkera, toponimia, historia, ohiturak jaso eta hedatzea sustatu

9.- KOMUNIKABIDEAK

- ▮ Herri edo eskualde mailan euskarazko komunikabideen garapena sustatu edota euskararen erabilera bultzatu egungo komunikabideetan

10.- TEKNOLOGIA BERRIAK

- ▮ Gazteek eskura dituzten teknologia berrien euskarazko erabilera sustatu



Eskerrik asko

www.emun.com